

*Mantua 1982*



**BIZKAI'KO FORUA**

Puxana eta Agirregabiria'tar Kepa'k  
Leenengo aldiz euskerara itzuliak.

Estornes eta Lasa'tar Joscha  
Foru-adicrazle.

MCMLXXXI

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

# 1982 URTE BARRIA

Gabon-gabeko danbada, zarata ta zorakeriak igaro, ondoren, ona emen urte barri baten bide luzea artuta, zapa-zapa, gure elburuetarantza euskaldunak.

\* \* \*

ZER aldizkari apal onek 50n. zenbakiaz asten dau urte au. Egin genduan, ori dala-ta, geure batzarra. Ondorenak zenbaki onen zortzigarren orrian aurkitu daikez irakurleak. Gogotsu gagoz ba, urte barri onetan gure lana egiteko. Gure idazleak be biziago daukaguz, itxaropentsuago.

\* \* \*

EUSKERAZALEAK Alkarteak gogotsu artzen dau urte barri au, batez be euskerea, Bizkai'ko euskerea ez dakienai irakasteko gogoaz.

Arlo onetan, eta gure jaurlarien eskariak dirala, geroago ta bide egokiagoak eta eraginkorragoak artu bearko doguz.

\* \* \*

Euskera zabaltzeko bideetan dirua ugariago izango dala dirudi, baiña bear ba'da baldintzak estuegiak dirala, batez be irakastean sartu bear diran orduai begira.

Umeai ta gaztetxuak eskoletan eta ikastoletan euskerea irakasteko bideak be zabalduko dirala esan lei. Eta onetan bide egokiak artzean edo okerreko bideetara sartzean dagoala uste dogu etorkizunaren oiñarririk sendoena. Or erri-euskerea sartzen ba'da, biziko gara, baiña idazkeran naiz euskerearen edozein arlotan okertzen ba'gara kalte galantak etorriko dira.

Bizkaia'n biskaierea eta toki bakoitxean tokiko euskera sartu bear da mailla orretan eta, gaiñera, Bizkai'ko euskereari atxea ezarten ba'jako kalte ikaragarria egingo jako, gure euskalkiari naiz euskera osoari. Or dago ba, gure bide-kurutzea eta gure aukeramena.

Artu daiken bide okerra diruaz eta agintzaz indartzen ba'da, ainbat txarrago. Ez neuke neure sorbalda-gaiñean artu gura olako jokabide okerraren erantzupena.

\* \* \*

Euskalerria bere eskubideak lortzen itxaropentsu doa aurrera.

Gora-bera aundiak agiri dira lortze orrean giroan. Ezpatak goian dagoz antxiñako bizkaitarrak eta Kixote jaunak izan ebezan antzera, baiña ekin eta ekin gure ordezkariak bideratuko dabe arazo ori.

Ikerea edo izukeria be aspaldion isillago izan da, naiz ta azken-egun oneitan iraultza-zergea dala-ta gorabera gogorak agertu, esaterako Alonsotegi'n.

\* \* \*

Mundu zabaleko giroa be garratz agiri jaku, batez be Polonia'ko arazo gorria ta larria aurrean dogula, eta orren geriza lez Golan-mendietako goraberak.

Bakea gizonen artean leiar auskor baten antzeko lez agiri da, zori txarrez, eta orrek gizona artegatu ta larritu egiten dau. Banaka eroapenez erantzun arren, gizadi-barruan jokabide baragarriak ugari sortzen dira.

\* \* \*

Ekonomiaren eta lanik-ezaren larritasuna be gure gaiñean daukagu sartada gogor lez, bazter guztiak eta kale-ertz asko eskekoz beterik ikusten doguzala.

Urte barri onek itxaropen-susmoa emoten dauala esan dau gure Garaikoetxeak, baiña larritasunari beroa kentzekoak ala benetakoak diran berba orreik ez da errez jakitea. Itzaropena ez da etorri oraindiño.

\* \* \*

Aurrerapenerako bakea bear dogu euskaldunok, bakoitxaren barruko bakea eta alkar onartzeak emon daikeguna, garratzasunak kendu eta bizi-poza emongo dauskun bakea... Eta urrintxo ete dagoan gagoz.

Orra or, 1982'garren urteko kezka ta itxarobide batzuk.

# BIZKAI'KO FORUA EUSKERAZ

*Ona emen liburu eder bat. Ederra orriz eta izkiz. Ederra aundieraz. Ederra begientzat eta ederragoa adimenarentzat.*

*Bizkai'ko Forua deritxo liburu oneri eta gure Lege Zar idatzia dakar, Jose Estornes Lasa'k Forua adierazten dauala eta Puxana ta Agirregabiria'tar Kepa euskeratzaille.*

*Bizkai'ko euskeraz dator eta orrelan izan bear, Bizkai'ko Lege Zarra agertzeko euskerarik egokiena ori dalako.*

\* \* \*

*Oraintxe agertzen da lenengoz «Foru» au euskeraz. Sinistu-eziñekoa da benetan, euskaldunok izan dogun erdel-zaletasuna. Zergaitik Bizkai'ko Batzarretan onartu ez erdera ez dakianik? Ez ziran orretan gorabera makalak izan. Zergaitik batzarretan erdera utsa erabilli, noizean bein gaia ondo ulertzeko euskeratu-bearra izan arren? Zergaitik batzar-agiri guztiak erderaz? Eta zergaitik Lege Zarra bera argitaratu zanean, erdera utsean?*

*Zergaitik asko, baiña erantzun egoki gitxi. Ori ez da besterik gure nortasuna galtzeko euskaldunak artu genduan okerreko bide bat baiño.*

\* \* \*

*Gaur zuzendu da apur bat okerreko bide ori. Gaurtik aurrera ezin esan gure legeak erdera utsean dagozanik. Puxana'ri eskerrak, Lege Zarra euskeraz daukagu. Eta beste lan aundi, eder eta egoki batzuk egin ez ba'leuz be, auxe bakarrik naikoa litzake Puxana'ren izena eta bere ospea illezin biurtzeko, bera izango da beti Foruaren, Lege Zarraren, lenengo euskeratzaillea eta ori kondaira-ikasleak gizaldirik gizaldira esango dabe.*

\* \* \*

*Salduko ete da liburu au? Makiña bat liburu da bazterretan pillatuta, saldu barik. Olan geratuko ete da au be?*

*Ez dot uste. Liburu ederrak, apaingarriztat baiño ez ba'da be, saltzen dira. Onek gaiñera gai-alde-tik be erogarri izateko zion ba-dauka. Zein aber-tzalek ez dau nai izango Lege Zarren liburu ederra erosi?*

*Ez da liburu merkea, gaur ez dago merkerik ezer, guzurra edo olakoren bat izan ezik, baiña guz-tiok erosi-bearrekoa dogu.*

\* \* \*

*Eta irakurri? Nortzuk irakurriko ete dabe liburu au?*

*Astitsu bizi diranak bai, irakurriko dabe. Gauza jakingarriak dira izan be-ta. Baiña astitsu bizi diranak gitxi dira gaur.*



*Eta besteak, asieratik azkenera dana ezin izango dabe, baiña ikuska lez eta zatika geiena askok irakurriko dabe.*

\* \* \*

*Liburu oneri buruz neure eritxi batzuk agertu nai neukez idaz-lan onetan.*

*Ez trebe-alde-tik. Lege-arloan ez naz trebea eta erderazko lege-itzen esangurea ondo euskeratuta dagoan jakiteko euskerea ondo jakin bear da, baiña ez gitxiago legearen esangurea eta orretarako legearen kondaira eta egin zan aldiko giroa jakin bear dira eta guzti ori urrintxu geratzen jat.*

\* \* \*

*Ba-dauz liburu onek gauza eder eta zoragarriak. Esaterako aditza erabiltea. Onetan Puxana benetako maisu dogu. Iñok ez daki Bizkai'ko aditza berak bestean ondo erabilten. Eta ori argi ta garbi geratzen da liburuan.*

*Joskeran be benetako jakituna dogu Puxana. Ez dauka ba liburuak orretan utsik. Eta itzulpenetan oso gauza gatxa da ori lortzea, batez be erdereak*

dauzan esaldi luzeak ebagi barik euskeratzen diranean. Oso ederto egiten dau Puxana'k lan ori, orretan txalagarria da.

\* \* \*

Baiña sartu gaitzan iztegi-arlora. Liburuak azkenean iztegi labur eta egoki bat dakar, 524n.orialdetik 538'garrenera. Eta iztegiaren arazoa oso eztabaidagarria da: Batzuk erdel-itzak sartu ta sartu egiten dabez, beste batzuk, sabindarren bideari jarraituz, erderazko itzik bat be ez dabe onartzen eta ba-dira erdi-bidea artu dabenak. Oneitarikoa dogu gure Puxana. Ez dauz erderazko itz larregi artu, baiña bai artu bear ez ziran batzuk, neure ustez.

\* \* \*

Azalean bertan «FORUA» berbea aurkitzen dogu. Lege-gizonak esan bear ko dabe «foru» itz orren esangura zeatza zein dan, baiña gure eritxi apala agertu dagigun.

«Foru» berbeak erregeak emondako zerbait dala agertzen dau ala esan lei. España'ko legeen barruan dan zerbait. Eta eritxi ori atzerakada aundia izan da gure erriaren kondairan. Beste alde batetik, aspaldion Lege Zarra esaten da ori adierazteko, eta zergaitik onartu ez itz ori?

Ori baiño be baragarriagoa da oraindiño Franqueza itzultzeko Frankeza artzea. Itz au ez dau euskaldunak iñoz erabili eta itz barria da euskerearen arloan. Eta barria izatekotan itz egokiago bat billatu bear zan.

«Hijo de Algo» edo «Hidalgo» «Aitonon seme» artu dau Puxana'k, baiña nondik eta zergaitik? Itzaren jatorriari begiratu ezkeron, ez dago orretarako biderik eta esangureari begiratu ezkeron, «aitona» euskeraz, gipuzkeraz, aitita da eta nik dakidala ez dauka beste esangurarik. «Aitorren seme» geiago entzun izan da eta biak dakaz Azkue'k. Baiña ez jat atsegin, neuri beintzat, euskeratze ori. Arabiarra-kandik artutako esangurea dan ezkeron, «ondasun-seme» izango zan egokiago eta esanguraz aberatsago edo «etxagun».

«Libertades» itza «erri-eskubideak» itzultzea be ez dot uste onartu leikenik.

«Jaurerri» darabil «Señorio» itzultzeko. Au aspaldion asko entzuten da eta «jauregi»n dauko oiñarria, baiña ez ete zan egokiago izango «jaunerri»?

Eta «noble» itza orrelantxe geratzen da euskeran. Urtenbide errezegia benetan. Zergaitik ez «leñargi» edo «zintzo», aspaldion entzuten dan lez?

«Pertsona» itza be noizbeinka agertzen da. Ez ete dira aspaldiko itz euskaldunak «norki» ta «notin»?

«Inprimatzaille» asieran eta gero «irarri» sarritan. Zergaitik ez «irarle», batera ibilteko?

«Notario» ta «Eskribau» ez dira bat izango, baiña eskribaua erriak aspaldion erabili dauan ezkeron, nik bietarako erabiliko neuke, eta «idazkia» esanbearrean iñoz ez neuke erabiliko erriak be erabilten ez dauan «Izkribu» itza.

Eta ona emen beste itz batzuk eta ondoren nik ezarriko neuken itzulpena: Sillua/ikurra, Kantziller/zaintzaille, Gortea/legegintza, Lizentzidun/baimendun, justizia/zuzentasun, zuzentzaille, Merinalde/eskualde, Korrejidore/zuzenkide, Fiskala/legeragille...

\* \* \*

Eta joskera-aldean, «nork-nortzuk jokoan «-ek» erabiltea, ez daukat ain bide okertzat, baiña azkeneko «-ek» orrek bizkaieran zeatugabearen esangurea izan dau beti. Erriak oso ondo darabil ori, zergaitik aldatu bear dogu? «Gizonek egin dabe» ez da iñoz, ez iñon, esaten, bai, ostera, ainbeste gizonek ikusi dabe, lau gizonek egin dabe... Artu dagigun erriaren araubide zeatza eta ez maisuen jokabide nastatzaillea. Euskerea erriarena da eta arauak emotean kontu aundiaz jokatu bear dogu.

Eta «nori» atzizkia edo «morfema» erabilten dogunean, «ei» ez dot egokitzen jotzen, iñoz eta iñon bizkaieraz erabilten ez dalako. Egia esan iñoz agertzen da, «buruei» esaterako, baiña ori aboskeria eta aurreko u'ren indarrez dana, edezeiñek daki.

Olako jokabide asko sartu dira aspaldion gure bizkaieran, baiña erriak ez dauz sekula onartuko, bereak ez diralako. Goazen erriaren bidetik eta ortik eratu dagiguzan gure «gramatika-legeak», ez maisuen bidetik.

Dana dala, eta amaitzera noa, geure arteko eztabaida txikiak alde batera, barriro esan bearrean nago, Puxana'ren euskerea, eta liburu onetakoa batez be, euskera ederra, jatorra, garbia, ondo josia, egokia, berba baten esateko, benetako bizkaieria, bizkaiera apaindua, zuzendua, egokitua ta batua dala eta bizkaieran sakondu gura daben guztiak ondo egingo dabe liburu eder au erosi ta irakurriaz. Legeetan gure izakerearen susterra, euskeran gure euskalkiaren oiñarria eta abertzaletasunean berotasunerako bidea aurkituko dabe.

Ez dagiala uste izan gure Puxana'k alperreko lana egin dauanik, ez. Bearbearreko lana eta jatorrasuna billatu gura dabenentzat guztiz onuragarria egin dau. Orain asten dana, gure ekiñaldia da. Ez dautsoguz liburu oneri berak eskiñi dautson beste lan eta izerdi eskiñiko, ez dautsku berari emon dautson beste burukomin emongo, baiña irakurri dagigun astiro ta ondo ausnartuz.


OLAZAR'tar Martin'ek



# EGOITZAK

SANTA TERESA

## Egoitzak



IDAZPURUA: Egoitzak edo BARNE-GAZTELUA.

Idazlea: Jesus'en Teresa Deuna, Eliz-Irakaslea.

Euskeratzaillea: Aita Onaindia.

Azaleko marrazkiak: M. T. Agirre-goikoa Aristondo'k.

Argitaldaria: Aita Karmeldarrak-Larrea'n.

Urtea: 1981.

Irarkolea: Gráficas Lizarra.—Estella (Navarra).

\* \* \*

Aita Santi lekaide guztiz langilleak beste liburu bat argitaratu dausku. Eta betikoa esan bear: Nondik ateraten ete dau astia gure aita Santi'k ainbeste lan egiteko: Batzar bat ba'da, an dago; ikastaro bat eratzen ba'da, an dauka bere itzaldia; edozein aldizkari artzen ba'dogu, an agiri da Santi'ren idaz-lana; ikastolan irakasle, eleizetan izlari, irratieta erranlari...

Eta aurten Teresa deunaren la-reungarren urtea dala-ta, Euskalerria-

ren omenaldia eskiñi nai izan dautso aita Santi'k, euskaldunak ain maitezituan Teresa deunari. Eta asmo orren ondorena, 240 orrialdeko itzulpen-liburu eder au.

\* \* \*

Sarrerako oarra 1980'an egiña da eta eguneratu barik. Alde batetik 1962'an dala diño lareungarren urtea. Or irarkola-utsa nabarmen dago eta zoritxarrez geiegi izaten dira olakoak gure idaztietan. Datorren urtean Aita Santua Avila'ra etorriko dala diño, ori 1980'an esana dan ezker ez da betetu, Aita Santuak izan eban ezbearra izan ebalako.

Sarreran, baita, Errekarte'tar Joakin zumarragatarra egiten dauan itzulpena gogoratzen dau, eta liburu argitaratu baiño len eriotzea eldu jakola.

\* \* \*

Amazortzi orrialde luzeren barruan, liburuari sarrerea egiten dautso Santi'k. Bearrezkoa au be, batez be Teresa deunaren jokabidea eta pentsabidea karmeldar edo eleizbideko ez diran askorentzat uler-gaitxak izan daitezkealako: bere izkera pozgarria ta erritarra, «sukaldean gardostua», iñoiz ez illuna, beti opa-rotsua.

Gero Teresa'k idatzitako liburuen zerrendea ta EGOITZAK liburuaren garrantzia aztertzen dauz, zazpi egoitz edo egon-lekuetan zer agertzen dauan azalduz. Liburu ulertzeko jakin-bearra au, benetan.

Mistika edo Ezkutu-iztiaren arloan Teresak izan eban oarmena edo «experiantzia» azaltzen dau gero. Literatura-arloan izan diran ezkutu-iztik idazle euskaldunak bat baiño geiago izan dira, baiña munduko literaturak, elertiak, izan dauan arlo zabal onetan gai sakonak eta uler-gai-

txak agertzen dira eta orregaitik sarrera on bat bear da liburu eskuarte artzen dauana bat-batean gogaituta geratu ez daiten.

\* \* \*

Ogei ta zazpigarren orrialdean, Teresa'k berak ezarri eutson Idaz-puru luzea dakar, euskeratuta, eta len esana beteteko, irarrutz pare bat daulazala: *lau*(lan) eta *karmeldar*. Eta jarraian Idazle deunaren sarrerea, liburu au idazteko agindua betetea gatx egin jakola esanez.

Ogei ta amaikagarren orrialdean, *Dos capítulos, bi idazpuru*, itzultzen da, baiña itzulpena ez da egokia nire ustez, bi atal edo olako zerbait obeto izango zan.

Azkenean, 235n. orrialdean, lan amaituaren poza agertzen dau Teresa'k egokiro.

\* \* \*

Liburu onetan Aita Santi'k euskera ederra ta garbia, egokia ta ulerterreza darabil.

Ez da bizkaieria, gipuzkoeria baiño. Ez dakit zergaitik artu dauan itzultzailleak euskalki ori. Erdikoa dalako? Geiagok erabilten dabelako?

Gaur geiago oikeran edo «modan» dagoalako? Erantzuna berak emon al izango dau. Dana dala, badakigu Santi'k zelako maitasuna dautson gure bizkaierari eta zio sakonen bat izango zan bere barruan gipuzkoeraz idazteko. Gaiñera, bixkairarrak gipuzkoeria erabilten dabenan, beti sartzen dabe gure euskalkiaren zerbait eta ori be euskera aberasteko bidea izan leiteke, benetako baturako bidea.

Zorionak eta eskerrak Aita Santi'ri.

OLAZAR'tar Martin'ek

# 1981 GARREN URTEA GURE INGURUAN

## URTARRILLA

1. Don Manuel Irujo'ren eriotza, Iruña'n. Euzko Jaurlatitzak, EZIKETA-ardurea izango dau aurrerantzean, Unibertsidade-Irakaskintzan izan ezik.
9. Seguridade Batzordea sortzen da. Zerga-Ituna («Kontziertu Ekonomikua») onartu eta izenpetzen da.
11. Ospakizun aundia Gernika'n, Zerga-Ituna legeztatzeko.
29. Jose Maria Ryan baitua. (Sekuestratua).

## OTSAILA

3. Juan Carlos erregea, Euzkadira.
4. HB'ko ordezkari-talde batek, Gernika'ko Batzar-Etxean, erregearen aurrean, iskanbilla zaratsua egiten dau.
5. Politiku-alderkiek, sindikatu eta beste erakunde askoren artean, agerraldi izugarria Bilbo'n, Ryan'en askatasuna eskatzen.
6. ETA (m)'ak, Jose Maria Ryan il dau eta gorpua, Zaratamo'ko basabide baten itzi.
10. EAJ'ren senadore dan Julio Jauregi il da.
12. Poliziak, bere geletan emondako tratu txarrakaitik, antza danez, Joseba Arregi il da.
20. ETA (p.m)'ak, Austria, El Salvador eta Uruguay'ko konsulak baitzen dauz.
- 23-24. Tejero'k Madril'en, Parlamentura indarrez sarturik, bertako alduak bere menpe eukiten ditu, urrango egunerarte; bitartean TVE lanean, berrizko benetako pelikulea munduari agertzeko.
26. Calvo Sotelo, España'ko lendakari barriak, zin egin dau.
28. ETA (p.m)'ak, konsulak aske itzi eta geldiunea iragarten dau.

## EPAILLA (MARTIA)

3. Garaikoetxea, gure lendakariak, eta Calvo Sotelo España'koak, lenengo alkarrikustea egindabe.
9. Monzon il da, Baiona'n.
26. Madril'go korteetan, Jabetzadun Alkarteentzat lege berezi baten bear-izana, ontzat artzen dabe: «LOAPA».
21. Romeo Rotaetxe il dabe, Begoña'n; Luis Prieto Garcia, Iruña'n.

## ORRILLA (MAIATZA)

1. Berenozko aza-orioak (aceite de colzak) bat il dau lenengoa.
13. Gasteiz'en, garrantzizko 13 almen eskuratzen dabez eta izenpetu.—Vaticano'an, Aita Santua, txarto, Zauritua izan da.
14. Lemoa'n il bat.
20. Euzko Jaurlaritzak Legebiltzarrari, Jabetzadun Alkartearen kontu-aurrearen lenengo egitasmoa aurketzen dautso.

28. Zerga Ituna (Kontziertu Ekonomikua) BOE'an agertzen da.

## EKAINA

22. Jabetzadun Ertzaingo buruko, agintelekuak eskintzen, deia egin da, Madril'go Boletinean. Madril'en, Kongresuan, ezkonbanatza-legea (dibortzioa) onartzen da.
25. Garaikoetxea ta Calvo Sotelo'k, barriro alkar ikustea izten dabe.
30. Euzko Legebiltzarrak, Jabetzadun Alkartearen ordezkari, Igancio Gaminde, Juan Ignacio Uria ta Enrique Casas, senadore izentatzen ditu.

## UZTAILA

1. Tolosa'n: ildako bi (bata, Ubao'koa ta bestea Durango'koa) eta zauritu bat.
7. Marcos Vizcaya'k, UCD'ko gobernuari, orduntze zeatzekotan dagozan Jabetza Itunbenak eztabaidatzen, Euzko Jaurlaritzaren agiria eskuratzen dautso.
28. Garaikoetxea'k eta Calvo Sotelo'k, alkar ikusten dabe barriro.

## DAGONILLA

Muxika'tar Errobustene, «TENE», euskal idazlea il da Deba'n.

## IRAILA

24. ALDERDI-EGUNA, Iratxe'n: bertan, Jabetzadun Alkarteari ipiñiriko eragozpenak salatu ditu, Garaikoetxea'k.

## URRILLA

- 8-9-13. LOAPA dala-ta, auzia Euzko Legebatzarrean.
17. EAJ'k, Lemoniz'ko nukleo-indarretxeari, «baldintzapean baietza» emoten dautsola adierazo dau.
21. Auzia, eztabaidea Urrutikuskiñean (Telebistan). Mario Fernandez'ek, Martin Villa'ri, LOAPA dala-koak, auxe egin dauala argi azaltzen dautso: España'ko Legediari (Konstituzioari)uts egin eta Gernika'ko Estatutua lorrindu.
25. Estatutuari baietza emoten agerraldia: ESTATUTUA BAI, BAIÑA OSO-OSORIK.

## AZILLA (Esateko jazoerarik ez)

1. Euzko Jaurlaritzak, bere lenengo Errizor Jaukipena.
16. ETA'ren espetxeratuak, Nanclares'era eltzen dira. Lemoiz'ko indarretxeari buruz, Legebatzarraren batzordeak gerturiko azterpenaz Aldun-Batzar Nagusia asten da.

MAITENA

# EUZKO OLERKI EGUNA

ZER'eko irakurleak ondo dakien lez, ainbat urterik onantza euzko olerki-eguna ospatzen da Zornotza-Etxano'ko Larra'n, Kisto Bakalduna edo Errege'ren igandean, baiña, beti olerkari dan edo izandakoren baten omenez.

Aurtengoa Zamarripa'tar Paul apaiz zintzo ta euskal idazle goren-goaren orogarriaz izan zan, Larra-ko karmeldar lekaideak dakiten lez, orretarako bear diran arlo guztiak ondo antolatuta.

\* \* \*

Eberdatian, amaika ta erdietan, jaupa edo meza abestu ederra ta karmeldar zintzo orrein txadon apain txairuan.

Eleizkizun atsegingarria bera, eta amaitu ta laster, batzarra eurok orretarako dauken etxe berezian, orretarako bertaratu ziran olerkari, bertsolari ta euron arteko irabazleak zeintzuk ziran jakin ondoren, eurak txalotu ta goralduteko bertaratu gintzazan guztiontzat.

\* \* \*

Leiaketa apal baiña goralgarri ortarako mai-burua osotuten dabenak, Aita Santi, jai-sortzaille lez eta, aurreko urtean arlo bakoitxean irabazle izan diran irurak izaten dira, eta, eurok izan ziran beste guztion aurrean igiri ebazanak leiaketa ortarako bidaldu ebezan ainbaten lan bikaiñak, baiña jakiña! danak ezin ziran irabazle eta, oneik izan ziran aurtengo onenak lez aukeratuak:

Lirika arluan, Aurre-apraiz'tar Balenedin ajangistarra.

Eresi edo poema-egille: Ugarte'tar Martin, Oñate'ko Brinkola-tarra.

Olerkaritzan edo bertso-egille lez Ondarru'ko Azpiri'tar Joseba Mirena idazle bizkorra.

Ez dago esan-bearrik be, pozik txalotu genduzala irabazleak ta aurkeztu ebezan lan guztiak, bertan gintzazan danok.

\* \* \*

Gure zorionik beroenak irabazleai, baten geiagotan eta, bai-ta be leiake-

ta ortara aurkeztu ziran guztiei eta bai karmeldar lekaideai eurak diralako jai goralgarri orren antolatzaile.

Nai-ta txindi gitxiko leiaketa izan, lan bikaiñak aurkeztuten dabez bertora.

Egoki izango litzake Euzko Jaur-laritzak jakintza arloan berak daben ordezkari bitartez arduratu ta alde artuko ba-leuke, Euzkadi'ko jakintzaren onerako.

\* \* \*

Jaitxu atsegin-garri ori amaitu ta laster, adiskide-arteko bazkaria, Lekaide-etxetik urbilleko jatetxean.

Bazkari ona ta gogaldi obiaguaz jateko, euzkotarren artean oitura dan lez, euzkerazko abesti aberkoirik asko abestu zan.

Urrengo urteko jaia Tene Deban'tar euzkal idazle zintzua izan zan emakume abertzalearen oroigarritz izango da, ori ta geiago be ondo irabazita eukalako berak.

Basa-Jaun.

ALTUNA'tar Josu

## CUBA BARRUTIK (XI)

### HOTELAK

Kanpotarrentzako hotel bereziak izaten dira. Baiña alan eta guztiz be ezin dozu nai dozun eran edo askatunez jokatu.

Esate baterako, hotel bateko jatetxean jan nai ezker, ostatuz egon bear dozu bertan.

Bestela ez dautzue jaten emoten; eta au, hoteleko jantokia oso-osorik utsik egonda be ez.

\* \* \*

Bein baten auxe jazo jatan: hoteleko jantokiko arduranari baimena eskatu ostean, maai bat artu genduan, bazkaltzeko asmotan.

Leenengo (eta beti egiten dabe bardin) ura eta guriña atera eustezan; ostean, nai dazun janaria aukeratzeko papperra.

Bitartean, ogia eta guriña jaten aritzen zara. Ostean, janaria atera orduko, ostatu-ezaugarria eskatu eusten, logelako zenbakia artu eta zer jaten dozun idazteko.

Jakiña, a ez zan nire ostatua eta ez neukan ezelango

ezaugarririk. Atzerritik etorritako tekniko bat nintzala azaldu neutsenean, hoteleko arduradunarengana joan eta berba egin arte itxaroteko esan eusten. Itxaron be egin neban, baiña alperrik.

Parkamena eskatu ostean, niretzat ez egoala ezer eta kalera bialdu ninduen.

Ori, bai: ogia eta guriña kobratu barik.

\* \* \*

Andik urten eta jatetxe bat aurkitu-bearra izan neban. Baiña, itxaron bearraren itxaron bearez, goseak be-  
rak be iges egin eustan.

A zan a txandan itxaron-bearra! Eta jesarri eta ostean be gogaitu arte euki ninduen.

Eta au jatetxean laguntasun ugari egoala.

Olango egoeretan Euzkadi'ko arrautz-opillak amets!

Cuba'n igaro dodan urtean birritan bakarrik jan dot ondo jatetxe baten, eta bietan Riviera hoteleko jantokian. Eta au bertan ostatuz egoan adiskide bateri esker.

PIRU LEGARRETA



# SABIN eta EUZKERA

Esan leiteke gaur-egun gure izkuntzak, euzkerak, indarra artzen dauala.

Batzuntzat oitura lez dalako aldi ontan, beste ainbatentzat bizibide lez dalako, bai emakumezkoak ta bai gizonezkoak, irakaskintzarako bear dabelako ta abar.

Baiña, oraindik geiago geituko litzake gure izkuntza, saleroste guztietan edo geienetan eta lantegi askotan sartuteko baldintza bat lez euzkera eskatuko ba-litzake, beartuta aurkituko litzakezelako euzkotar guztiak eta bertora etorri diranak be.

\* \* \*

Bearkun ortatik kanpora, be ainbat dira euzkera ikasten ibilli diranak eta diarduenak, baiña, ez gitxi gauza aundirik ikasi barik geratuten diranak ikasteko gaitza dala atxakitzat ipiñita.

Ez dago zalantzarik ezereztik asi bear dabenantzat gaitza izango dana, baiña, euzkera baizen sailla edo geaigo izango dira doiztar edo alemandar izkuntza, eta —zetan esan be ez—, ingelera ta beste atzeriko izkuntza asko ta, ori ta guzti be euren bearra dabenak polito ikasten dabez gaitzak izan arren.

\* \* \*

Egia da, euzkera ogibide lez bear ez-bada, abertzalea ez danari azpergarri egiten jako, gaztelera edo prantzera (zein Euzkadi'tan bizi dan) berez eta ezer nekatu barik ikasten dauelako, baiña, benetako abertzalea dan euzkotarrak, beren izkuntza ikasi bear dau eta ikasiko dau.

Orretarako baiña, gure Irakasle Sabin'ek esan eban lez, erria, euzko-Erria euzkotu, abertzaletu egin bear dogu geure ekandu garbi guztien gaiñetik EUZKERA maitatu ta goraldtu daigun.

\* \* \*

Ainbat gaitzagua da abertzalea ez dana euzkalduntzea, esango dogu zergaitik eredu txiki baten bitartez:

Jaio ziranik geiago asi gintzazan euskeraz alabatxuai egiten, baiña oraindiño gaztetxu zirala ba-

ten baiño sarriago esan dauste, onezean edo gogorago euzkera egiñazoten neutzeelako; Aitatxu, zergaitik egin bear dogu euzkeraz guk urliak, bestek eta bestek erderaz egiten ba-dabe?

\* \* \*

Egiz, adin artako umetxuei ez nekian zer erantzun, eurentzako uler-gaitzak dirako esan dagigitseguzan gauza asko eta, zerbait esatearren esaten neutsen: euskaldunak gera eta euskaldunak beti euzkeraz egin bear dau.

Aundiagoak egin ziranean eta erantzun ori esan orduko adirazoten emon nautsen, dakitan gitxitik, benetako euzkotarrak zelan euzkera jakin bear dauan, izkuntza dalako nortasunik aundiena emoten daskuna, bestela, zelan esango dozue etzarella espanarrak ez prantzetarra oneek lez itz egiten ba-dozube?

Gaiñera, euzkera da ludiko izkuntzarik zarrenetariko bat beste guztietatik bardingea, diferentia, jakitunak dirauskuenez bikaiña ta aberatza ta abar.

Eta, orretara uler-errezago egiten jaken zergaitik mintzatu bear garan geure izkuntzaz.

\* \* \*

Orixe zan izan bere Sabin gure Irakaslea-ren jokabidea; lenengo Erria, Euzkadi euzkotu, abertzaletu ta, orrezkero euzkera gaizkatuta dago, erri-maitasun orrek ez dautsolako galduten lagako.

Beraz irakurle, Arana-Goiri'tar Sabin'eri eskerak, berak gure biotzetan sartu eban Aberri-maitasunaren bidez, eutsi jako euzkerari eldu dan lekura arte irauten.

Besterik ez-bada be, geure euzkera gaitik egin ebana gaitik, goraldtu daigun beren irurogei ta amazortzigarren ildako urteurrenean Bera lakoak izateko, kistar eta abertzale lez.

\* \* \*

«Gure deadarrak ez entzuteko/ nun zera Aita Sabino,/ zuri negarrez urtuten gagoz zuk alde egin zenduan esketiño./ Etsaiak gaitik zu il ba-ziñan/ gure biotzak zer diño?/ zu ilda bere etsai gogorak/ zu il-da bere etsai gogorak/ bizi dirala oindiño».

ALTUNA'tar Josu

# 50n. ZER'ERI ITAUNAK

Egunak joan, egunak etorri, gure ZER 50n. zenbakira eldu jaku. 1977n. urteko uztailean agertu zan lenengoz. Orregaitik gure ZER onek ba-dauka bere nortasuna, baita irakurleai ta idazleai, asmatzailleai ta lankideai berba egiteko eskubidea be, eta guztiai esker ona agertu-bearra be bai. Ona emen ZER'egaz asmamenez izan dogun alkar-izketea.

\* \* \*

M. O.—*Kaixo, aspaldiko adiskide ta illeroko irakurgai zaitugun ZER!50n. zenbaki onetan zure adiskide guztien izenean zugaz berba egin gura dogu.*

ZER.—Ba-daukat neuk be zuekaz berba egin-gurea eta ainbat gauza esateko be bai. Pozik sartzen naz ba alkar-izketa onetara.

\* \* \*

M. O.—*50 bider eldu zara gure eskuetara, illero-illero, udako zenbaki bat izan ezik. Zuk be izaten dozu zure oporraldixua. Baiña nortzuk izan ziran zure asierako asmatzailleak eta bultzagilleak?*

ZER.—Or naikoa isillik dabillen bat izan zar ni argitaratzeko geien ibilli zana, Letona aita pasiotarra. Au asko arduratuta egoan Bizkaieraz aldizkaririk agertzen ez zalako, naizta beste aldizkari batzutan be idaz-lanen batzuk gure euskalkiz agertu. Lagunak eta laguntzak billatu ebazan eta azkenez jaio nintzan zorionean.


\* \* \*

M. O.—*Gogoratu egizuz Letona edo Egiluze idazlearen inguruan izan ziran beste batzuk be.*

ZER.—Bai, eta pozik gogoratu be. Arenaza jauna esaterako. Gure Josu'k benetan maite dau bizkaiera eta bera izan ez ba'litz ni ez nintzan munduratuko. Baiña oso lanpetuta bizi da eta lenengo zenbakietan idaz-lan batzuk argitaratu ebazan Gero ez da larregi nigana urreratzen. ZER'en talde bat sortu zan orduan, EUSKERAZALEAK'en inguruan, eta gero dana geratu da EUSKERAZALEAK'en ardurapean. EUSKERAZALEAK erabarrizteko be egin eban lana Josu'k eta ortik etorri jatan iraupena. Egurrola Iñaki'k be, bere asti-aldi laburretan eta al dauan bestean, asieratik emon dau bere laguntza. Eta beste askok.

\* \* \*

BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
40n. ZENBAKIA  
ZEZEILLA  
(OTSAILA)  
— 1981 —



M. O.—*Zelako artu-emonak daukazuz gaur EUSKERAZALEAK taldeagaz?*

ZER.—Ezin-obeak. Auntzorriak ormeari oratuten dautson lez oratuten dautsot nik talde oneri bizirik irauteko. Eta orain-artean orma sendoa izan da nitzat.

\* \* \*

M. O.—*Gura dozuz aitatu beste laguntzailleren batzuk?*

ZER.—Bai. Isilleko lana egiten dabean laguntzaillak daukadaz eta zuzentasunak eskatzen dau orreik gaur aitatzeta. Eta lenengo Landajuela'tar Andoni. Iñoz idatzi be egiten dau, baiña ori, asko izanik, berak egiten dauan lanik txikiena da. Landajuela'k gertatzen ditu illero aleak eta euren garrikoetan izenak eta zuzenbideak ipiñi irakurleen eskuetara eldu naiten. Ba-dago or beste emakumetalde bat, isillean, izenak be agertu barik, banatze-lana

egiten dauana. Orrein lana bearrezkoa ta zintzoa izan da, illero eta egun izendatueta. Eta EUSKERAZALEAK taldearen inguruan, beste asko.

\* \* \*

M. O.—*Esan egiguzu labur labur: Zertarako etorri zara mundura? Zein da zure zeregiña?*

ZER.—Bizkaitarrai bizkaieraz itz idatzia egin eta orrelan idazleak eta irakurleak sortu gure euskerearentzat.

\* \* \*

M. O.—*Berrogei ta amar zenbaki oneitan agertzen diran idazleakaz pozik zagoz ala gitxi dira?*

ZER.—Geiago izan ba'lira obeto, baiña 58'garren zenbakian, lenengo orrialdean agertzen dan zerrendea ikusi ezker, pozik egotekoa da.

\* \* \*

M. O.—*Eta irakurleak? Ugaritu dira?*

ZER.—Euskalerrian gitxi irakurten da, baiña asko dira lenengo izkitik azkenekora, lerro bat galdu barik irakurten nabekak. Ori esan legikeen aldizkariak gitxi izango dira. Eta illero benetako egarriaz egoten dira batzuk ni eldu arte alkar-izketa labur eta gozora sartzeko.

\* \* \*

M. O.—*Eta ba-daukazu areriorik? Ba-dago iñor baztertzen zaituanik?*

ZER.—Asieran esan neban lez, besteai baketan izten daset eta besteak be bai neuri. Ez da gitxi gaurko mundu astatu onetan. Ba-dira, batez be asieran izan ziran, baztertu ninduenak, eta lenengo eldu nintzanean atzera biurtu ninduen gitxi batzuk be izan ziran.

\* \* \*

M. O.—*Zabalkunde gitxi egiten dozula diño...*

ZER.—Eta, zori txarrez, egia da. Lan ori egiteko ez dauka uñok astirik. Bernardo Ibarra gaztea da orretarako geien arduratzen dana, baiña onek be bere lanbidean eta euskera irakasten lan aundiak eta asko ditu eta gauza aundirik ezin izaten dau. Idatzi be egiten dau noizean bein, Laguntzaille guztiz ona dot gazte au.

\* \* \*

M. O.—*Beste arlo batera sartzeko, Zornotza'n berrogei ta amargarren zenbakiaren ospakizuna izan ei dozu. Zelan egun ori?*

ZER.—Abenduaren 26'an izan zan ospakizun ori. Olako ospakizunak gaur ez dabe izaten antxiñako beste aundikeri. Nire lagunak aundienak ez ziran an izan. Geien idatzi dauan Estonba jauna, urrengo idazle ugaria Gallastegi jauna, Bernardo, Landajuela, Arenaza, Letona, Iñaki Goikoetxea, Josu Altuna, eta beste asko ez neban an ikusi. Batzar ori egiteko ardurarik geien izan eban Txanton Goiria be ez zan etorri. Batzuk eziña agertu dabe, beste batzuk itzitasuna izango eben, beste batzuk apaltasuna... Baiña balio dauana lan egitea da eta langille biziai olako utsak errez parkatzen jakez.

\* \* \*

M. O.—*Zure jokabideari azterpena egin jakon Zornotza'n. Mindu egin ziñan?*

ZER.—Artetzailleak ez ziran gogorrak izan. Sakontasunik ez daukadala, ba-nekian. Ni ez nintzan mundura etorri aldizkari sakona izateko. Illearen lenengo egunerako ez bazela eltzen be egia da, baiña ez garrantzi aundikoa. Dana dala, egunerako eltzen alegindu bearko dot. Irarutsak daukadazala, eta nork ez?

\* \* \*

M. O.—*Eta gorespenik?*

ZER.—Bai, eta neuk atsegiñen dodazenak. Errez irakurten nabela ta zenbakia irakurri ondoren, irakurlea egarriz geratzen zala, geiago irakurteko gogoaz. Au asko goratu eban Bixente Latiegi'k. Orrexegaitik beste barik, zuzendaria ez zala aldatu bear esan aban, naizta onek lanpetuta eta urrin, Bilbo'tik urrin bizi zalako itzi-gurea agertu.

\* \* \*

M. O.—*Eta aurrerantzean ezertan adatu-bearrik agertu eutzuen?*

ZER.—Bai. Idazleai eskari bizia egin eutsen zuzendariak, lan geiago bialdu egiezan. Bertsoetan geiegi agertzen dala, eleiz-gaiak be ugariegi, eta barriak urriegi. Orregaitik, idazle bik berbea emon eben batak urrekoak eta besteak urriñekoak, barriak bialtzeko. Egia esan ille-bete joan ezker barriak zar eginda agertzen dira, illearen laburpena eta barrien euskalerriratzea, labur-labur egingo da. Eta itz kurutzatuakaz batera «Astiro» orrialdean agertzeko barregaiak bialtzeko be arduratu zan idazle bat. Ba-da zerbait...

\* \* \*

M. O.—*Orduan ba-daukazu bizi-pozik?*

ZER.—Gaurkoz, eta Bizkai'ko ta Bilbo'ko Aurrezki-kutxen diru-laguntza daukagun artean, illero agurtuko dodaz nire irakurbeak euren etxeetan. Egingo al dogu osasunez beste 50 zenbakiko ibillaldia, eta gero gero-rokoak.

OLAZAR'tar Martin'ek

# GOGAMENA

## Goiria

Jaungoikoaren almenaren, jakintzaren eta maitasunaren neurri ta bapide dan mundu ontan, iru mundu dagoz: beko-lurreko mundua, gogo-mundua ta Jainko-mundua.

Iru argi emon eutsozan Jainkoak gizonari iru mundu oneikin ar-emona izan egian: bekoa ikusteko gure arpegian dirdir dagien argi antzeko begiak. Gogo-mundua ikusteko gogamena. Egi-tokiak biltzen dauazan illunpeak argizeko dan argia. Goi-mundua, Jainko-mundua ikusteko sinismena.

\* \* \*

Begiak! Jaunaren emaitz ederra!

Begirik barik ezer ezin ikusi, illunpe dana.

Ezin ikusi goi-ortzea, eguzkia, itxasoa, mendien edertasuna.

Ezin ikusi bere anai-gizonak. Ezer ez.

Sinismena! Jaunaren emoitz ederra! Beragaz ikusten dira goi-munduko lurralde edereskutuak.

Bere argi barik illunpetan dabil gizona beste mundu-zear.

Argi onek bere gogo-barnea argitu ba'dagi, mundu gelgarriak agertzen iakoz.

Asko dira soin-begirik bakoak. Asko, milloak gogo-itsuak, sinismen-argiak argitzen ez dauzanak.

\* \* \*

Zoriontsuak gu argi bi oneik daukaguz-da. Jaunaren kutunak gara.

Beste doai eder bat be emon dausku Egilleak: gogoaren argia.

Jaunaren emoitz ederra au be. Bere bidez ezagutzen dogu egia.

Berari esker ikasi daikegu, itz egin, ulertu, gure tartekoakaz aëmona euki, gizartean bizi.

Bera barik abere antzekoak giñake. Gogoaren argiak gure bekoki-gaiñean argi egingo ezpa'leuskigu, Ez giñake notiñak, adimendunak. Beraz gagiz gizon.

Aundia, ziñez, esan-eziñekoa gogamenak gizonagan dauan garrantzia, indarra.

Ara:

Gogamenari jaramonik ezpa'dagiozu, gogor egingo dautzu. (Franklin).

Gizonaren gogamena illunpeaintzira baten argi-tanta da. (Cormerson).

Gogamenak gogor egin leikeo zoritxarrari. Okarreak ez. (Rabin-dranak Tagore).

Indar-zakarroa eroan daiteke, goga, en zakarroa ez. (Wilde).

Menak eta irudimenak itxi egizuz eta gogamenean bakarrik izan ustea. (Descartes).

Gizaldi ta erri guztietako gizonak batzen dauz gogamenak uka ezin dan egiaren inguruan. (Fenelon).

Gogoaren men gorena, jakintza guztien iturburu, gizonaren egite guztien oiñarri da gogamena. (Platón).

Egirik-eza da gogamendun bantentzat gauzarik gogorrena. (Epiteto).

Ez daukagu geure gogamenaren aginduak zarrastzeko indarrik. (La Rochefoucauld).

Gauza batzuk aitatutzen edo egi batzuk sakontzean gogamena galtzen ez dauanak ez daukala agertzen dau. (Lessing).

Edozein jabe baiño ziurrago zuzentzen gauz gogamenak. Areri ezetza emonda zorigaiztokoak gara, oneri emonda jakingekak. (Pascal).

Gogamenak diñotzun bidetik zabiltza. Bere aginduak zuzenak ta bete egizuz.

Bere argiz zuzen ibilliko zara emeko munduari buruz, beste munduari buruz be bai.

# ZELAKOAK GARAN

## APOSTU - ZALEAK

Geiegizko apostu-zaleak gara... pelota jokoan, aizkora jokoan, idi demetan, estropadetan... berobero jartzen gara, burua galtzen dogu, dirua eta etxe-ko zoriona galtzeraino.

## LAGUN ONAK, ABESLARIAK

Euskaldunak berba gitxikoak ei gara, isillegiak; gure barruko gauzak ez doguz errez kanpora ateratzen...

Ezezagunekin lagun egitea kosta egiten jaku, baiña bein egin ezkeru, betiko lagun zintzoak ei gara...

Euskalduna ondo jan ondoren abesten asiko da, bestela jaia ez jai...

Euskaldunak abeslari onak garala esaten dabe ezagutzen gaituen guztiak...

Ikastolako BUP maillako ikasleen artean «itaunerantzun» batzuk egin genduzan, jakiteko, euren us-tez, zeintzuk diran euskaldunen «alde onak» eta «alde txarrak».

—Euskaldunen «alde onak». Zeintzuk dira «alderik *onenak*»?

	Autarki
Askatasun-zale .....	60
Berba-emotea lege .....	25
Aberria maite .....	10
Bake-zale .....	3
Lagun ona .....	2

—Euskaldunen «alde txarrak». Zeintzuk dira «alderik *txarrenak*»?

	Autarki
Banatuta bizi .....	52
Buru gogorak .....	28
Apostu-zaleak .....	20

Emen dagoz argi ta garbi jarrita, euskaldunen «alde on» eta «alde txarren» eritxiak.

Onela pentsatzen dabe 14-15 urteko neska-mutillak, euskaldunen izaerari buruz...

## IZAEREA

Euskaldunak teoria zale, baiño, praktika-zaleak ei gara...

Filosofia utsez baiño, pratikan lan egiteko ego-kiagoak...

Orregatik euskalduna, mekanikari, osagille, inje-niero eta esku-langille lenago izango da, pentsalari baiño.

Ekintzaille (ejecutor) obeak ei gara, asmatzaille (inventor) baiño...

## ASKATASUN-ZALEAK

Euskaldunak, gauza guztien gaiñetik, askatasuna maite dogu...

Askatasuna maite dogu, bai bakarka, baita gure aberria sortzean eta aurrera eroaten be.

Gernika'ko arbola Askatasunaren irudi edo ikas-bide da...

Baiña euskal-lurraldeak, kondairan zear, alka-rrengandik geiegi bananduta bizi izan dira, zoritxa-rrez!!! eta bakarka lan egin dogulako, arerioak jan egin gaitue.

Euskaldunak bere aberria maite-maite dau, eta iñok aurka egiten ba'dautso, indar guztiaz bere aber-ria babestuko (defendituko) dau.

Beste aldetik euskaldunak ez gara gure itxita bar-ruan bizi, gure arerioak askotan esaten dabenez... Ameriketari euskaldun- seme geiago bizi da, Euska-di'n bertan baiño...

Esatera zarra da: «Euskaldunak egoakin jaio di-ra»...

## KASKA-GOGORRAK

Euskaldunak ikaragarritzko kaska-gorrrak eta buru-gogorrrak ei gara...

Gure eritxiak eta asmoak beti aurrera eroaten ei doguz, iñoiz be amoreman (ceder) barik.

Indarrez eta txarrez ez gaitu iñok menperatuko...

Onez eta arrazoiz, ostera, ez gara burruka eta guda-zale Euskaldunak berez bake-zale izan gara, eta orain be alakoak gara, gure aurkakoak beste gau-za bat pentsa eta esan arren be.

Euskaldunak ondo ezagutzen zituan batek esaten ei eban: «euskaldunak onez bildotsak dira, baina eu-rekaz txarrez asi ezkeru... leoiari artean gurago neun-ke bizi»...

## EUSKAL ABESLARIAK

—Zein kantari edo kantari-talde da zuretzat go-gokoena?

Itoiz .....	21
Benito Lertxundi .....	20
Gorka Knorr .....	16
Errobi .....	8
Xabier Lete .....	8
Urko .....	7
Mikel Laboa .....	3
Laja eta Iturbide .....	1

Euskal kantari eta kantari-talderi buruz onela pentsatzen dabe Loiola ikastolako lenengo eta biga-rreri BUP maillako neska-mutillak.

GOIKOETXEA'tar Iñaki

## LUZA DAIGUN ESKUA...

*Ezeuki gogorrean munduratu ziñan,  
ez etxe ta ez jantzi, abereen artean.  
Baiña zure izarraren disdira garbiak,  
poza zabaldu eban gogo onekoetan.*

*Larritu egin ziran, andiki ta aberats,  
eurakaz nai aben, ba, munduaren ardatz.  
Iraulketaren bildur, gorrotozko iskilluz,  
errubakoak ilten asi ziran garratz.*

*Erbestera beartu, Erio'ren bildur;  
guraso saminduak joka bear zigur.  
Gose, lor ta atsekabe bizia zain bear:  
Gure Erriak ba-dakiz onelako makur.*

*Zapaltzailleen menpean gogorra bizitza:  
Erriaren deientzat erantzun garratza.  
Aukera guztiekaz goiko eta aberats,  
erri menperatuak bizimodu latza.*

*Luza daigun eskua maitetasun beroz,  
anai-arteon daiten Gabonetako poz.  
Alkar-maitasunean zutundu gaitezan,  
urkoen neke-lorrak arintzeko asmoz.*

*Ez gaitezan kikildu egin-bearretan;  
maitetasun-bideak edegi daiguzan,  
bakez izan dagigun euskaldun-bizitza,  
Nazaret'ekoaren alkartasunean.*

*Pozez ospatu daigun, Iosu'ren jaiotza,  
ezeukiai eskiñiz, biotzez, laguntza.  
Menpeko ta baztertu gizartera daizan,  
egin dagigun indar: Ez gaitezan lotsa.*

*Urkoeri laguntzen dagigun aletin,  
gizarteko aroa ohea izan dedin.  
Alkar-maitetasuna da kristauon sena:  
Doguna emoteko ez gaitezan ziztrin.*

AURRAITZ

## 50n. ZER

### Irakurle:

Urterril onetan oituraz baiño be beranduago eltzen jatzu gure ZER. Parkatu. 50n. zenbakia dala-ta egin dogun batzarraren barriak emotearren atzeratu gara. Aleginduko gara illero illearen asieran ZER zure eskuetan izan daiten.

IDAZKOLAKOAK



## EDERTASUNA, BARRU POZTZAILLE

Gauza eder bat ikustean bat-batean gure barruan pozezko kili-kili bat, nai ta nai ez, somatzen dogu.

Euskal erriko, izadiak, gure biotz-barrua poztuteko, baster polit ederrak, ugari ugari ditu.

Gure ama lurraren edergarririk edergarrietakoak baserri etxeak dira.

Ortik zearko lurraldeak, askotan, luze ta bardin aspergarriak dira. Ez olakorik gure lur-aldetan.

Bardintasuna ta aspergarritasuna or emen, mendi, zelai, solo ta arroetan agiri diran baserri etxeak urrindu ta uxatuten ditue.

Uso zuri bizen antzera, alde guztietan agiri diran basetxeak, bestelako bizitasun bat emoten dautse gure luraldeai.

Ederrak gure basetxeak, baña ederragoak izan bear leukienak.

Baserri etxe asko illun eta traketz agiri dira or emen.

Azken aldi onetan, neure ibilaldietan, pozik ikusi dot baserri etxe batzuk ederto gaurkotu dirala, tellatu gorriakin, etxe ormak euren ertzetan zuriz margozturik, inguruko baratza lore ederrez beterik.

Lan ori ipar-aldean lenago egiña zan eta emen, zergaitik ez gaurkotu baserri etxe dának euskal jatortasunaren jauregi lez ager daitezcan?

Izan, bere baserrietan osotua da euskaldunen sen ta izatea.

\* \* \*

«ASIERA» Liburuak diño, Jaunak gizona egin ebala lurra landu ta zaindu egian.

Gure lurra, geure geurea dana, Euskalerria da.

Berau landu, zaindu ta edertu bearrean gagoz.

Euskal erriko luraldearen pitxirik ederretarikoan gure baserri etxeak doguz eurok

bere zaindu ta edertu bear doguz, eurok ikustean gure barru-barruan poz-ikara somau dagigun.

Sarri askotan euskaldunok, geure gauzak, egunero ikusten ditugulako, ez ditugu aintzakotzat artzen ez eta maitatuten bear dan legez, besteenak ederragotzat arturik.

Munduan zear ibil-aldi luze bat egiten ba'dozu, gauza polit eder asko ikusiko dituzu baiña, etxerra biurtzean, konturatuko zara geureak bere ainbesteko edertasuna badabela eta gauza askotan emengoak ederragoak.

\* \* \*

Gure edertasunik berezietako bat baserri-etxea da ezpai barik.

Lur-alde guztiak goraldtu bear doguz, baiña zer esanik bere ez, geureak lenengo.

Bein da birritan esango dot geure-geure diran baserri etxeak zaindu ta edertu bear doguz, Jaunaren agindua beteteko ta gurera urreratuten diran guztiak atsegin artu dagien gure edertasunean.

\* \* \*

Inguruko edertasunak gure barruko edertasuna indartuten dau duda barik.

Onagoak izatera bultza egiten dausku. Edertasuna, biotz-ikara gozoa sortzen daben osotasun ta bikaintasuna da.

Ikuspegi ederrak (or baserriak) bizitasun berezia emoten dautso gure biotzari, osotasun ta bikaintasuna bera dan Jaungoikoarengana bultzatuaz.

Agintari, baserritar, ekologista eta (berba baten) euskaldun danok alegindu gaitezcan geure ingurua edertuten jakiña, geure baserri etxeak gaurkotuten.

GALLASTEGI'tar Kauldi

# GERNIKA - ABELLANEDA

## BIOTZMIN

Gutziz ondo gogoratzen dot.  
Argizarizaturiko olezko aretoan gu jolasten genbiltzan bitartean, Erramona Bilbao, nire amumak, berba eta berba eta berba egiten euskun beren bizkaitar euzkeran.

Egurrezko aulki batean jarrita zegoalarik jaboten ginduzan.

Ikusten nago. Izatez txikia baiño txatxartuago zegon urte askoren egitamuz.

Jasten eben estu-beteko txartes baltz, goma baltz, bi mustur zorrotzdun buruan lotutako zapi baltzez. Abarketa baltzak, Belarritako baltzak, biribillak, txiki-txikiak. Eskuak, tximurtuak, zuria-goak zirudien amantal baltzaren ganean.

Berba eta berba egiten eban erabat erremuskada eta maitekorra iruditzen jakun euzkeran.

Iñoiz ez eban ulertu izan zergaitik bere birloba bilbotarrak ez eutsen barbarik egiten.

Erramona Bilbao, nire amuma, Amorebieta'ko Ibarra'tik ekarria, uri zarrean, Barrenkale Barrenako 3 zenbakian, il zan.

Erderaz erreztatu eutsen.

Gizondu giñan, eta orduan bai, ulertu neban nik zergaitik ez geuntsan barbarik egiten guk aren birlobok.

## LUR ETA MEATZ

Ganguren mendi-besangaetako zidorretatik eta Santo Domingo'ko bizkarretatik, 1895'gko urtearen egun baten, nire amak, oñez, egin izan eban Amorebieta'tik Bilborañoako ibilia.

Ibarra baserrira ez zan geroztik iñoiz geaigo biurtu an bizitzeko. Josten ikastera bialdu eben.

Baserritar neska gazteak bere atu apalaz batera Bizkai Lur Lautadako euzkera garbia zekarren.

Toleztuak, otzaran, aren soñanzkiak baserritar bidezkundezko otaen eta amabirjiña atzapar edo sasi-amaen usaia emoten eben.

Zazpi kaleetan kutsatu yakon orduko berbetea, portukoz eta baserrikoz, txatarrak eta alorretako igoz nastekatua.

\* \* \*

Nerbion'go eskerreko ertzetik, tartanan, eldu zan nire aita Begoña'ra.

La Casilla basetxean jaio zan, San Salvador del Valle'n.

Oskiak Arboleda'ko burdin-austez zikinduta zekarzan. Saldu ebazan lenengo zementuak, gisu gorberak eta landerritar piñugorri olak, Erripa'ko kaiean ustauak.

Aren berbeta erromantzetuari edertasuna emoten eutsen Enkarterriko esakerak eta aboskereak.

\* \* \*

Saloresketaria eta baserritarra Arenal'ean ezagutu ziran.

Pagasarri eta Artxanda artean begiratzen diran Sandroketako erromerietara igon ziran.

Ori guztiagaitik da ba, nireak, bizkaitar sortalde eta sartaldearen batzez zabalduriko beste Bilbo'ko askoren antzera, egiñak dagoz landuriko lur zatiz eta meatz garbituzko burdin tokigunez.

Ibaizabal'enak eta Kadagua'renak, Gernika'ko Foruarenak eta Abellaneda'koarenak.

MUNIATEGI-tar Sabin

Gazteleratik euskeratua.

# GORBEA'RA JOAN-ETORRI BAT

Bizkai'ko menditar edo mendigoizale batentzat, Gorbea'ra (Gorbeya esaten eben lenago mendi orren inguruetako bizitanleak) egun batzuetarako joatea, edo ordu batzuetarako, besterik ez ba'da joan-etorri bat bertara egitea. Benetan atsegingarria izaten jako, guretzat erakarle izanik bera, burnibizi (iman) lez bertaratuten gaituzalako mendi-zaleok. ¡Ain ederra da izan bere Gorbeya!

\* \* \*

Urte bat baiño geiago zan Bizkai'ko mendirik ederrena ta Euzkadi'ko apaiñenatariko ortan egon bageak gintzazala, geure iztar errenduaren erruz, baiña, geure barrenean daroagun mendi-koko orrek edo, lenago esan dogun burnibizi orrek bultzatuta, Martin deunaren «udatxuko» egun eguzkitsu baten bertaraño eldu gintzazan, beste ni baizen urtetsuago bat lagun gendubala. Jakiña! lenen Pago-Makur'eraño berebillez igon ondoren.

\* \* \*

Gorbeya ortara igoten dogun bakoitxean, baiña, iñon diran burutaziñoak, oroipenak etorriten jakuz oroimenera.

Gaur-egun be ederra ta apaiña dau mendi ori, ainbat apaiña goa ta aberatsagua zan bera ezagutzen gu asi gintzazan aldiari, eta bai bertan izan genduan guda-keta zitalaren osterarte be, gure lurralde ontan ezagun doguzan zugatz ederrez apainduta eta, artalde, abel-gorri, euntz-talde eta, bai-ta txori ugari, zenbat nai basurde ta ainbat baso-pisti bere ikusten zalako bertan. Aldi-artan Gorbeya'k euken zugaztita eta beratako abelditza, ikusgarria zan. Eta, jakiña! zelango aberastasuna?

\* \* \*

Gudaketa amaituta laster, baiña, asi zan inguru artako zugatz erastia edo botatzea ta, ez zan geratu alderdi artako aretx ta pagadi guztiak ebagi arte, euren orde piñuz betetako be-alde guztiak.

Zugatz ebaiketa eta, beraz, Gorbeya'ren edertasuna ta aberastasanak bearbada irauñ-eraziak edo eutziñak izango ziran «Primo de Rivera»k Espaiña'ko bakar-agintza edo diktadura ipiñi baiño len-txuago, Bizkai'ko Aldundegian aldun ziran Sota, Araluze ta Arginzoniz jaunen txostena ontzat artua izan ba'zan.

Oneek, abertzaleok, Gorbeya Erki lore-baratza (Parque provincial) edo besterik ez bazan laterriko lore-baratza lez arteza nai eben.

Baiña, lenengotan ontzat lez artua izan ba-zan be, goragotik azken baten ezeztua izan zan txosten ori ta, gero ikusi doguz ikusi nai izan ez doguzanak.

\* \* \*



*Gorbeia erpiñaren barrenean Igeriñao'ko ostatua, pagadiaren ondoan.*

Orain erurogei urte dira lenengoz Gorbeya ortara igon gendubala. Ondo gogoratzen naz! Aretza'tik (Villaro) egin genduban igoera.

Dana zan, aldi artan, zugatz be-bealdian, lizarrak, pizkat goratxuago gaztandiak, goratxuago zenbat nai aretx eta gorago Arraba'ko landa ondorarte eguzkia bere nekez ikusiten zan pagadiak.

Eta, orretara beste edozein errietatik asita be, inguru guztiak aberez beterik zirala.

Gaur-egun ez dau mendidi onek aldi artako aberestasanik ez edertasunik. Bealdeak lerdiz, piñadiz beterik dituan bitartean, goi-aldeak zugatz barik diralako eta, beraz, ainbat abere gitxiago dagolako.

\* \* \*

Esana ta guzti bere, Gorbeya'k benetako erakarleak ditu mendigoizaleontzat: ibilteko bide onak, belardi zabalak, ikusgarrizko arzuoloak eta leza ikeragarriak, arkaitz erpiñak.

Aldi bateko Orozko-udalarien edur-tokitazarako zulo aundiak, urte guztian edurra dabenak, ur lerdendun iturri ta iturburak non nai eta, edozein aitz-muzturretara eta batez bere Gorbeya-ganera igon esketiño, ikuspegi zoragarriak, edozein ametslariren ikus-naia asetuteko beste-kuak.

Zer geiago nai dau izadi-zale batek?

\* \* \*

Oroipen orreik geure burutan genduzala eldu gintzazan Arraba'ko landa zabal ederrera, Ganguren'go menditarrak bertan daben aterpean, ostatuan, geldinetxu bat egin ondoren —abopekot xu bat egiten genduban bitartean egin da,

landea zear urtetako ta laster baten Egiriñau'ra elduaz, tapa-tapa aldatz erpiña gora, astiro baiña ziur, Gorbeya-gane'ko gurutzearen ondora elduteko, pizkat nekatuta baiña pozez beterik, orain urtebete ez gendubalako uste geiago bertara igoterik.

Aa zan zoriona!

\* \* \*

Ez-genduban aldi aundirik egin Gorbea-ganan, nai-ta eguraldi ona egin, aixe-firu zorrotzak bultzatzen ebalako, baiña, bai argazki bat edo beste atera, bertan aurkitzen dan Begoña'ko Ama'ren irudiari eskerrak emonaz batera lantan bana berari emon, bardin Gurutzeari, eta orixe bai! gogotsu «Ara nun diran, mendi maitiak...» eta «Benetan da polita, gure Aberria...» abesti gozoak bertan gintzan biok abestuteko beste aldi, bearbada azkenengo aldiz dala oldoztuta.

Esan dogunez, poz-pozik aurkitzen ba-gintzan be Gorbeya-gana'ko ikuspegiari, bai-ta pozik jatsi gintzazan, barriz, Egiriñau'ra, bertatik zuzen jarraitzeko Arraba'ko aterpera.

An bazkaldu ta atsedean pizkat artu ondoren Pagomakur'era. jatsi barriz berebilla artu ta mutiko batzuk baiño pozago etxera itzuliteko.

Beste zerbait geiago bere idatzi neikian Gorbeya'taz, ondo ezagutzen dodalako eta, berataz gizon ikasiak idatzi dabena-gaitik, baiña, luzegia ez izateko, beste baterako lagako dogu.

Gorbeya! nun dago zulako beste mendirik?

ALTUNA'tar Josu

# URTE ZAARRA JOAN DA

Urtearen asieran  
nik ames bat biotzean  
ames aundi amaibako  
neban nik adimenean.

Euskal erri maite-maitek  
lortuko oso-osoan  
askatasun zoragarri  
beti naia gizalditan.

Emen dagon elizea,  
gizaldi ta gizalditan,  
gutziz eder, gaurkotua,  
izango zala egitan.


Ames ori baietzkorra  
bizi-bizi nik barruan  
ames eder auxe zala  
argia neure gogoan.

Gure euskera biguna  
euskal sendi guztietan,  
ontzat artu, maitatua  
izango zala gaurkoan.

Euskal erriko gizadi  
aldatuz bere barruan  
alkartua izango da  
loturik besarkadean.

Ori ta geiago nai nik  
neure ames ederrean  
baiña dana ez da lortu  
gaurkoz joan dan urtean.

19.<sup>a</sup>



*Goiti*

EZKERRETIK ESKUIRA: 1. Aparecer, manifestar. Ruina.—2. Voy. Cre- cer.—3. Perder.—4. Poder. Nochebuena.—5. Tú mismo. El mismo. Aliento.—6. Nega- ción. Tambiën.—7. (el) Carbón. Nuestro. Morir.—8. Los, las.—9. Charla.—10. Explor- tar. Es/y.—11. Escampar. Con, por.—12. Escoger, tomar. ¿Qué?—13. Es/y.—14. Co- cer. Próximo.—15. Deuda. Llama. Aparecer.

GOITIK BERA: 1. Fotógrafo. Negación.—2. Grano. Meridional.—3. Primavera. Ahi.—5. En ningún sitio. Abundante.—6. Carencia, falta.—7. Resto. Escampar.—8. Su- fijo diminutivo. Mirar.—9. Saben. Lo ha o lo tiene.—10. A allí.—11. Beso. Reloj.—12. ¡Ca!, tampoco. Turbio.—13. Yo. Sí. A, al. Macho.—14. Puntapié, coz.—15. Posible. Leberar.

Zerbait baña lorturik da,  
ez ez ibil negarrean  
gizonaren albidea  
txikia da mundu ontan.


Itxaropen ez ez galdu,  
urte barri da atetan,  
ekin Jauna lagun dala,  
jarrai beti amesetan.

Naiz ta gutxi lortu dala  
urte zar orretan?  
aurtengoan lortuko da  
beste zerbait ben-benetan.

Orregaitik  
ez aspertu  
erabagi sendoetan  
oiñarritu egi-egiz,  
jarrai ames aundietan.

GATARDI

## 18.<sup>a</sup> ERANTZUNA



*Corri*

# EUSKERAZALEAK

## ILKETAK ETA ERAILKETAK

Igandea, edozein igande zan. Ordu biak-aldean, izparringi-saltzaille bategaz nengoan. Egunerokoak erdi-geldirik.

\* \* \*

Alerik geien noz saltzen eban itauntzean, «illak eta sarraskiak izanten diranean», artu neban erantzuna.

Ilteak eta erailteak bearrezkoak doguz, biziak bizi gaitезan. Begiratu atzerantz. Gibelera. Il izan diranen egun berezira.

\* \* \*

Gizon eta emakume, lorazko gurutz, burestun eta txortak saltzen. Lur onetatik joan jakuzanak gogoratuz or ibilli izan dira Bilbo'tarrik geienak dirua eralgiten.

\* \* \*

ETA'koak, bat bestearen ostean il, zauritu, edo ebasteen, edo orpoan zibillak doakioezanean, aitaren egin baiño lenago kentzen daustez.

Eriotza moltzoka ta pilloka danean, askoz be obe.

Il naitean ez dot gura, auzotegitik urrin ba'da, albetan diardunak azken-arnasa emotea... zori onean izan gaitean.

\* \* \*

Il-bearrez sortzen gara, il bearko naz.

Bizitza barik ez dago eriotzarik.

Illotzak, lur-emoteak eta olakoak... A zelako illerriak doguzan, milloiak zenbatu-ala txauturik.

\* \* \*

Kulunka ta sabuka biziko gara, ongillari makurrak egiñik, ezpaitagarri salatuz. Eta azken batean... danok... zulora.

Aberats eta txiro, edur eta eguzki, lorez eta lora barik, bake-tokian izango gara. Ala biz.

LANDAJUELA'tar A'k

### GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK

### SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...

# ZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

## Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

*Coupe en nosotras*

*Zerre nortea zuzan*



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO  
BILBO AURREZKI KUTXA**